

# Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA: GORKA AZKARATE  
ARGAZKIAK: YARTU KULTUR ELKARTEA

## Ezkiio-Itsaso (Gipuzkoa)

# Dolare zaharrak sorgindurik

1965ean egin zuten bat Ezkiok eta Itsasok; nekez aurkituko dugu Euskal Herrian biztanleak hain sakabanatuta bizi diren udalerririk. Bostehun bizilagun, 21 kilometro koadro eta bost auzo: Ezkiio, Itsaso, Alegi, Santa Lutzi eta Mandubia. Horrez gain, Matxinbentako zati bat Ezkiio-Itsasori dagokio. Baita Igartubeiti baserria ere. Hantxe da egitekoa, honezkero zortzigarrenez, Sagardo Astea. Baserriko dolarea lozorrotik aterako dute horretarako.

Berezitasun handiko hainbat txoko ezkututzen dira Ezkiio-Itsasoko lurretan; Ezkioko Amabirjina agertu zen lekuak, esaterako, sona handia lortu zuen bere garaian, Ezkiio-Itsa-

son eta inguruetan ez ezik, urrunago ere bai. 1931ko ekainaren 30ean zenbaitek bertan Amabirjina ikusi zuela esan ostean, erromesaldiak hasi ziren: sei hilabeteko tartean milioi bat lagun baino gehiago inguratu omen zen agertokira. 2002an ingurunea txukundu eta berritu zuten, eta gaur egun oraindik ere jende dezente inguratzen da bertara, hilabete bakoitzeko bigarren igandean elizkizuna ospatzen baita.

Kizkitzako basiliza, berriz, Ezkiio-Itsasoko biztanleen toki maiteenetakoa da. Mandubiako mendatetik helduko gara errazen Kizkitzako basilizara, Ezkiio eta

Itsasotik abiatuta bide ederretan barrena iritsi bagaitezke ere.

Kizkitzako basiliza 1622an eraiki zuten, eta izen bereko mendi kaskoan dago, 664 metroko altueran. Ermitak berak zein hango Amabirjinak lotura handia dute itsasoarekin, aipamen historikoen arabera inguruko basoetako zura itsasontziak eraikitzeke ustiatzen zelako. Bertan itsas-argia egotea ere ez da kasualitatea. Itsasotik ongi ikusten omen da hark isurita-ko argia, nahiz eta ez dirudien itsasontziak gidatzeko funtzioa duenik; lan horretarako eraginkorragoak, aukeran, kostaldeko itsas-argiak. Itsasoarekiko erlazioa, bestalde, itsasontzi itxura duen ermitak eta inguruko elementuen kokapenak ere iradoki dezakete. Gaur egun, hiru meza ospatzen dira Kizkitzan urtero: Pazko eguneko arratsaldekoa, irailaren 8ko erromerikoa eta horren ondorengo igande arratsaldekoa.

Ezkiio-Itsasoko kultur ondare aberatsaren erakusgarri dira, baita ere, Ezkioko San Migel eliza eta Santa Marina basiliza, Anduagako Santa



**Toki honetan agertu omen zen Amabirjina, 1931n. Ondoren milioi batetik gora erromes iritsi zen bertara, batzuek diotenez.**



Ezkerrean, Kizkitzako basiliza, 1622an eraikia. Eskuinean, Yartuko kideak piseoien sagarra jotzen.

Luzia, Itsasoko San Bartolome eta San Lorenzo, Alegiko Magdalena eta Mandubi zelaiko dolmena. Azken urteotan, ordea, Igartubeiti baserri zaharraren inguruan indartu den mugimenduak eraman du Ezkio-Itsasoren izena herriko mugetatik harago. Igartubeiti XVI. mendean eraiki zuten, eta jatorrian dolarea zen. Igartubeitiz gain, Saletete eta Aristizabal baserriak ere XVI. mendean eraiki zituzten eta dolarea zuten euren egiturako ardatz. Saletetek, Igartubeitiren antzera, egurrezko etxaurreari eutsi dio; Aristizabalek berriz, beranduago erantsitako harrizko arkuak dauzka gaur egun.

### Baserri zaharraren negar malkoak

Igartubeitiko dolarea lanean ikusteak bisitariak nekez ahaztuko duen bizipena da. Baserriko zurezko egitura guztiek kirrinka egin ahala muztioa nola sortzen den bertatik bertara ikusteak zirrara berezia eragin ohi du aldiro, prozesua aurretik ezagun izanik ere.

Sagar saskikadak askan barreiatu eta, piseoiak lagun, sagar jotzeari eki-

ten zaio. Jarraian, sagar txikitua edo patsa bildu eta aska erdian pilatzen da, mendi modukoa eginez. Mendi horren gainean ohol ezberdinez osaturiko egitura konplexua osatzen da, eta haren bitartez baserriko habe nagusiak bere indarra igorriko du patsa zanpatze lanean. Patsarekin kontaktuan hodiak jartzen dira, muztioa errazago atera dadin, eta baserriko beheko solairuan dagoen ardatza biraraziz, goiko solairuko habe nagusia gora eta behera mugiaraziko da, patsa zanpatu eta hartatik muztioa erauziz. Muztioa, gero, askak berak duen pendizaz baliatuz, estolda zulora bideratzen da, eta erratz adarrez iragazi ondoren, ukuiluko tina edo kupel batera erortzen da. Muztioa edateak ere xarma duen arren, irakinaldi pare bat beharko dira, kupel ireki batean, aurrena, eta kupel itxian ondoren, benetako sagardoaz gozatzeko.

### Urriari, Sagardo Astea Igartubeitin

Pilarika jai egunaren bueltan ospatu ohi da, 2001etik, sagardo astea

Igartubeitin; aurtengoa zortzigarren edizioa izango da, beraz. Yartu kultur elkarteak da Ezkio-Itsasoko kultur jardueren sustatzaile eta bultzatzaile nagusia eta urriko sagardo astea, zalantzarik gabe, herriko kultur egutegiko zita garrantzitsuena da eurentzat.

Sagardo asteak irauten duen egunetan, baserriko dolare zaharra martxan jarri eta duela 500 urteko teknika erabiliz edari preziatua egingo dute Igartubeitin. Ekimena heldu aurreko asteak sagar bilketa eta antolaketa lanetan buru-belarri murgildurik igaro ohi dituzte Yartukoek. Aurreko edizioetan, Ezkio-Itsasoko bertako ia 5.000 kilo sagar zanpatu zituzten Igartubeitin. Horrez gain, baserriko atarian ikusgai egongo den sagar erakusketan, 70 mota ezberdinetako aleak jarri izan dituzte, Ezkio-Itsasoko sagarrondoetan aurki daitekeenaren erakusgarri. Zikloa borobiltzeko, herriko zenbait lagunek XVI. mendeko jantziak soinean jarri eta orduko baserri bizimoduaren antzezpena egingo dute, baserriko betebeharrak ezberdinak irudikatuz. ■

**artez**

euskara planak      euskal papergintza      itzulpenak

trebakuntza      bulego materiala      hainbat hizkuntza

hizkuntza aholkularitza osoa      postalak, agendak      zuzenketak, egokitzapenak

enpresak, udalak, merkataritza...      inprimakiak, zigiluak...      teknikoak, komertzialak...

Lazara, 102 • 48014 Oeunty (Bizkaia)      +34 94 448 00 00      www.artez.net

**URRUTI SPORT**

PARAPENTE      KASTIARROAK

ETA BI LAGUNENTZAKO HEGALDIK

Jose Maria Soroa 20 • 20013 Donostia  
Tel/Faxa: 943 27 81 96  
e-posta: urruti@urruti.com • www.urruti.com